

Josu Mitxelena

BISITA



Lehengo batean bisita jaso genuen musika kultur elkartean eta ni une hartan bertan ez izan arren, bertan zegoenak (bandako zuzendari den Aitor Mitxelenak) bisita honen berri eman zidan. Musika Bandako musiko ohia genuen bisita hura, klarinetista hain zuzen (eta hura aipatzeko bere baimenik ez dudanez, ez dizuet bere izenik emango). Ba gauza da, musika banden alardea antolatzeaz ginela Alfonso XI kaleko egoitzara hurbildu zela eta bertan, 98an argitaratutako liburua gainbegiratzen izan zela. Liburua esku artean zuela zuzenean argazkietara jo zuen. Hau eta bestea komentatzen hasi zitzaion gure zuzendariari. Argazki zahar haietan azaltzen zirenak nortzuk ziren, musiko onak ala kaskarrak ziren, edo honelakoetan gertatzen den antzera, horrialdearen bueltan argazki batekin topo egin eta bertan dauden guztiak bera ezik, hil direla ikusteak. Hunkigarria zen duela urte pilo, bere aurrean zituen atril haietan gizon hura bere klarineterarekin irudikatzea. Edo gizon haren aurpegiaren keinua, argazki zahar harekin topo egin zuenean. Zer pentsatuko zuen gizon hark, musiko hark, bere burua berriro ere bandako lokalean ikusi, atril artean eseri eta argazki zahar haietako lagun eta taldekide guzti haiek berriro ikusita. Uste dut une batez lokal osoa musikoz bete zuela, berak bakarrik ikus zezakeen musikoz, “platerazko” kapelaz jantzita. Eta uste dut une batez musika zoragarria entzun zela lokalean, berak bakarrik entzun zezakeena edo beharbada guk ere, siatuz gero entzun genezakena.... baina ez, musika hura adinaren poderioz besterik entzun daitekena da. Oroimenak zama hastun bihurtuz doaz, denbora pasatzen den eina. Guzti honek gainera Joseba Sarrionaindiaren esaldi bat dakarkit burura. “Arazoa ez da denbora pasatzen dela. Arazoa da, ea zer pasatzen den denbora pasatzen denean”. Zuzendariak musiko honekin izandako solasaldi hura kontatzerakoan, nabaria zen gizon hark kontatutako historioak, bizitako momentu guztiak, bitxi-keriak, gure zuzendariaren jakinmina eta era berean senbiteratasuna agerian utzi zituela. Guzti hau goizez izan

zen. Arratsaldez elkarteko egoitzara iritsi nintzenean, Aitorrek berehala kontatu zidan, eta onartu beharra daukat poz irribarrea aurpegian zuela, goizez bertan izandako bisitaren nondik norakoak. Gure bisitariaren antzera, Aitorrek ere elkarteko liburua hartu eta bisitaria zein argazkitan azaltzen zen erakutsi zidan, eta berak konstatutako hainbat historia eta..... Batzutan espero ez dugun unean, iraganetik edo ez dakit nondik, bisitari bat hurbildu eta guk zergatik jakin gabe, oroimenean kutxa zabalduta eta sentimenduak dantzan jartzen ditugu. Eta txarrena da ez dakigula zergatik, edo beharbada bai. Egia esan ez dakit.



Beharbada hobe izango litzateke, elkarteak antolatutako ekintzen bati buruz idatzi izana, urtekari honek eskaintzen digun aukera aprobetxatuz. Gai intersgarriago bat aukeratu. Musika Banden Alardeaz adibidez zertxobait idaz nezakeen, VI ekitaldia aurtengoa, pixkanaka-pixkanaka..... ba goaz aurrera. Gainera datorren urtekoa benetan berezia izango dela ikusiko duzue. Baina berriro ere hasierako gaiari helduz lerro hauek idatzi nituenean, elkartetan batzutan, gutxitan bizi ohi diren momentu berezi horietako baten aurrean nengoela ohartu nintzen eta zuei azaldu nahi izan dizuet. Azken finean ezin genezake inolaz ere ahaztu,



herri baten nortasuna bere kultura dartzala eta kultura, gizakiok gure eguneroko ekintzekin osatzen dugula. Eta elkarteak noski, badutela zer esanik guzti honetan, pertsonak sortu eta osatzen dituztela. Lehengoan bisita jaso genuen Errenteriako Musika Kultur Elkartean eta nik hura besterik, bere sinpletasunean, baina era berean sentimenduek eskaintzen duten aberastasunean azaldu nahi izan dizuet.

